



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Itzalen distira**
Egilea / Autora: **Arrate Egaña**
Saila / Colección: Narratiba, 141
ISBN / EAN: 978-84-9109-822-5
Salneurria / Precio: 17 €
Orri kopurua / N° páginas: 152
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 15 x 22 cm
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para Adultos

Lana / La obra

Oroitzapen gogaikarri bat atzean uzteko beharra duen preso ohia. Aitaren hileta-elizkizuna fede-krisi batean dagoen apaizaren esku utzi nahi duen andre atea. Leihotik ikusten duen neskatxa batenganako obsesioak jotako atsoa. Ehiztariak utzitako hondakinak garbitzeko ardura hartu duen neska pare. Iktus bat izan ostean azkenekoa izan litekeen bidaia aspergarria abiatu duen emakumea. Irakasle ohi batekin topo egitean nerabezaroko maitasun-istorio bat berpizten zaion gaztea. Fikzio-adikzioak pasadizo ero batean murgildu duen emakumea. Ezusteko albiste ilun batek argira daramatzen hiru andre.

Ipuinen protagonistek, harrapatuta dauzkaten egoera tragikomikoetatik abiatuta, aurre egin beharko diete obsesioari, ihes egiten dien denborari, heriotzari edota sakrifizioari. Arrotza zaiguna ulertzeko aukera emango digu Arrate Egañaren bilduma honek.

Egilea / Autora:

Arrate Egaña Erreterian jaio zen, 1963an. Bilbon lan egiten du, hizkuntzen teknikari gisa, ISEI-n, EAEko irakas-sistema ebaluatu eta ikertzen duen Hezkuntza Saileko erakundea.

Hogeita hamar liburu inguru argitaratu ditu ume, gazte eta helduentzat, hainbat generotakoak (an-terkia, eleberria, ipuina...). Literatur sari batzuk irabazi ditu, hala nola Baporea (1999), Erroxape (2000), Emakumeak Kontari (2002), Lizardi (2011), Gabriel Aresti (2012), Donostia Hiria (2012) eta Mikel Zarate (2015).

Literatura eta gidoigintza ikasketak egin ditu.

